

EUSKALDUNA EUSKAL NABIGAZIOAREN URREZKO GARAIKO DANTZEZ BETEKO DA

**Larunbatean, uztailaren 25ean, 20:00etan,
Faustino Aranzabalen koreografiarekin
Auditorium-ean eszenaratuko den Kresala
Dantza Konpainiaren estreinaldia.**

Bilbon, 2020ko uztailaren 20an

Euskalduna Jauregiko Auditorium-ak "Amoria & Dolore Elkano, lehen mundubira" ikuskizunaren estreinaldia jasoko du datorren larunbatean, uztailaren 25ean, Euskal nabigazioaren Urrezko Garaiko dantzak erakusten dituen eta Faustino Aranzabalen koreografia duen Kresala Dantza Konpainiaren ikuskizuna. Sarrerak salgai daude jada ohiko kanalen bitartez.

"Amoria & Dolore" dantza ikuskizuna, euskal nabigazioaren urrezko aroan du sorkuntza abiapuntua. Elkanoren lehen mundubira gogora ekarriz, aintzinako musikan du inspirazio iturri nagusia, dantzaren herri adierazpenak beti izan baitu gaurkotasuna, kulturaren erreferente artistiko-historiko bezala. Obrak, Elkanoren zirkunnabigazioaren urrezko aroan zehar bidaiatzen du, ikerkuntza eta berrinterpretazioa lagun, ondare artistiko eta koreografiko berria sortuz. Nabigazioak utzi duen arrastoa agerikoa da, euskaldunok itsasoan barnako ibilietan munduaren kontzepzio modernoan izan duten lehen mailako eragin historikoan. Euskal Herriaren kokapena, nahitaezko igarobidea edo sartu-irten atea izan zen.

Horrek kultura desberdinak erakarri zituen, denen arteko bizikidetzak ahalbidetuz aintzinako garaietatik. Honek zera adierazten digu: gure arbasoek munduko bazter guztietako biztanleekin harremana izan zutela, gizaki guztien bizimoduaren bilakaeran zer esan handia izan zutela, eta gure herria hein handi batean, itsasoari esker sortu eta mendeetan zehar mantendu dela, ekarpena pentsaeraren arlori ere iritsi zelarik; barruan errotuta zuten XVI. mendeko euskaldunengan hain ohikoa zen zabalkuntza grina.

Faustino Aranzabalen dantza zuzendaritzapean eta Enrike Solinísen musikarekin, Kresala konpainiaren "Amoria & Dolore" dantza ikuskizun proposamen berri hau, gizakiaren historiaren ekintza

mugarri handienetako batean oinarrituta dago. Dantzariak, herri inspirazioz gorpuztutako arte barrokoaren espresio erakusgarrian, dantza preklasikoko bilduma osatu dute, antzezpena era naturalean eta askean burutuz, 17 eszena dituen ballet hontan akto bakar batean garatua, Esquivel, Iztueta eta Gadesi keinuak eta erreferentzia garbiak eginez. Horrez gain, Artze, Etxepare eta Galeanoren poemek obra goitik bera hezurmamitzen dute, poesia giltzarria bilakaturik. Bertan, euskal antzerki nazionalaren dantza sorkuntza molde berri baten eredu aurkezten da, drama tradizional garaikide berri bat proposatuz, espazio eta denboratik kanpo kokatzen dena.

Kresala Dantza Taldea

Euskal Herriko dantza konpainia, 1968an Donostian sortua Gene Yurre zuzendaria zela. 1993. urteaz geroztik Faustino Aranzabal bertako zuzendari artistikoa da. Mundu tradizionala eta poetika bisuala inspirazio iturritzat hartuta, dantza-antzezpen originalak osatu ditu, emozioetatik sortzen diren mugimenduei tentu handiz erreparaturik. Obra aipagarrienak: Hostoak (1996), Soka (1999), Marixe (2002), Sehaska (2006), Buba eta Bubu (2010), Oteizaren kaxa beltza (2014), edo Zeruko (2017) ikuskizunak dira. Ekoizpen guzti hauek, literaturaren, arte eszenikoen eta beste diziplina plastiko eta artistiko berrieekin elkar eragiten du, Wuppertal, Venezia, edo Kassel moduko Bienaletan euren sormen lana erakutsiz.

Dantza tradizionala europako dantza preklasikoaren eta historikoaren estiloarekin txertatu dituzte, nazioarteko dantza sari ugari lortuz. Hainbat kultur erakundeen, arte zentroyen edota ensemble barrokoen enkarguzko proiektu artistikoak diseinatu eta gune berezietan burutu dituzte, besteak beste: Hans Mayer galerian Düsseldorf, Henry Moore Studios & Gardens Hertfordshiren, edota Schloss Moyland Joseph Beuys museoan Bedburg-Hau hirian. Sentsibilizazio pedagogikorako eta mediaziorako programak eta kanpainak antolatzen dituzte eta dantzarientzat formaziorako proiektu iraunkorrak gauzatzen dituzte ere.

Sarrerak. 27 € (kudeaketa gastuak barne), salmenta www.euskalduna.eu webgunean eta Kutxabankeko orotariko kutzazainetan.

#KreoEnTiKultura: 5 euroko beherapena sarrera bakoitzean, <https://ticket.kutxabank.es/kreoenti/public/janto/#> webgunearen bitartez erosten bada. Aplikagarri soilik uztailean, abuztuan eta irailean egingo diren tokiko ikuskizunetarako.